



NAFARROAKO GOBERNUAREN PUBLIZITATE INSTITUZIONALAREN URTEKO PLANA 2026

Irailaren 13ko 57/2010 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eremuan laguntza-kontratuak egiteko eskumenak berrantolatzen dituen abenduaren 17ko 255/2007 Foru Dekretua aldatu zen. Bertan, Nafarroako Gobernuarentzako eta bere erakunde autonomoentzako zentralizazioa ezarri zen, bestek beste, publizitate instituzionalekoak.

2026rako, publizitate-kontratu guztien kontratazio-organoa Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren Zuzendaritza Nagusia da, eta kontratu horien kudeaketa-unitatea, Komunikazio Zerbitzuko Publizitate Instituzionalaren, Sare Sozialen eta Ikus-entzunezko Baliabideen Atala. Publizitate-jardueraren zentralizazioak publizitate-sormeneko kontratuei eta publizitate-espazioen erosketa-kontratuei eragiten die.

2026rako publizitate-inbertsioaren aurreikuspena, sormen-gastuak eta euskarrien erosketa-gastuak barne, 1.983.587,06 eurokoa da, honela banakatuta:

- 1.781.195,06 euro Plan honen 1. puntuan planifikatu eta zehaztutako inbertsiorako. Horietatik 420.000 euro Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren Zuzendaritza Nagusiak jarriko ditu, eta 1.361.595,06 euro finantzatzaile gisa zerrendatutako departamentuek onartu eta haien eskura jarri dituzte.
- Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren Zuzendaritza Nagusiak, gainera, 122.040 euroekin finantzatuko du planifikatu gabeko publizitate-inbertsioa, "Nafarroako Marka" eta lurralde-marka horrekin lerrokatutako beste departamentu-ekimen batzuk indartzeko.
- Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren Zuzendaritza Nagusiak, halaber, 62.000 euro jarriko ditu finantzatzen dituen kanpainetako publizitate-sormena kontratatzeko.
- Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren Zuzendaritza Nagusiak beste 18.352 euroekin finantzatuko du sustatzen dituen kanpainak sare sozialetan zabaltzea.



2026ko PLANGINTZA

1. Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoek 2026rako planifikatutako publizitate-kanpaina instituzionalen zerrenda, gutxienez 40.000 euroko inbertsioarekin kanpaina bakoitzeko, honako hau da:

KANPAINA ZENBAKIA	HASIERA	KANPAINAREN IZENA	DEPARTAMENTU FINANTZATZAILEA	INBERTSIO A
1	Otsaila	Alokairuari eta hipoteka-bitartekaritzari buruzko aholkularitza	Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua	40.000
2	Otsaila	Osasun-zerbitzuen digitalizazioa zabaltzea eta sustatzea	Osasuna	113.445,06
3	Otsaila	Euskara sustatzea haurrengan	Memoria eta Bizikidetza, Kanpo Ekintza eta Euskera	63.000
4	Otsaila	Martxoaren 8ko sentsibilizazioa	Lehendakaritza eta berdintasuna	50.000
5	Martxoa	Eskola Publikoaren sustapena	Hezkuntza	50.000
6	Martxoa	Merkatari-ofizioaren prestigioa sustatzea	Industria eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitala	50.000
7	Martxoa	Umetoki-lepoko minbizia prebenitzeko kanpaina zabaltzea	Osasuna	53.000
8	Apirila	2025 Errenta	Ekonomia eta Ogasuna	88.150
9	Apirila	Europako 5. astea Nafarroan	Memoria eta Bizikidetza, Kanpo Ekintza eta Euskera	45.000
10	Maiatza	Nafarroako Museoen Sarearen sustapena (Museoen Nazioarteko Eguna, Kulturizan eta Fluxu)	Kultura, Kirola eta Turismoa	50.000



11	Maiatza	Inbertsio publikoaren zabalkundea toki-erakundeen bidez	Lurralde Kohesioa	60.000
12	Maiatza	Herritarren arretarako kanal berriak etxebizitzaren arloan	Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua	40.000
13	Maiatza	Erregularizazio- eta sentibilizazio-prozesu berezia biztanleria migratzailearen inguruan	Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua	40.000
14	Ekaina	Kultur programen eskaintza sustatzea (DNA, SMADE, organo zikloa, Olite jaialdia, Kutlur, Landarte...)	Kultura, Kirola eta Turismoa	83.600
15	Ekaina	“La fiesta es que vuelvas” Kanpaina	Barne, Funtzio Publikoa eta Justizia	40.000
16	Ekaina	Adikzioen prebentzioa (pantailak)	Osasuna	65.000
17	Ekaina	Jaien Kanpaina	Lehendakaritza eta berdintasuna / Osasuna	70.000
18	Ekaina - Uztaila	Muturreko temperaturak	Osasuna	40.000
19	Abuztua	Eguzki-eklipsea dela eta segurtasun- eta kontzientziazio-kanpaina	Lehendakaritza eta berdintasuna	80.000
20	Iraila	Egiazko informazio plurala sustatzea, iritzi publiko fidagarrian oinarritutako bizikidetza	Lehendakaritza eta berdintasuna	100.000



		demokratiko sendo baterako		
21	Iraila	Garraioa ordaintzeko sistema bakarra hedatzea	Lurralde Kohesioa	60.000
22	Iraila	Helduen artean euskara sustatzea (euskaltegien matrikulazioa)	Memoria eta Bizikidetza, Kanpo Ekintza eta Euskera	50.000
23	Iraila	Arnas birusen txertaketa prebentiboa	Osasuna	40.000
24	Iraila	Etxebizitza Babestuen Errolda sustatzea	Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua	40.000
25	Urria	Osasun-baliabideen zentzuzko erabilera sustatzea	Osasuna	50.000
26	Urria	Nafarroako Autogobernuaren sustapena eta kontzientziaketa	Lehendakaritza eta berdintasuna	100.000
27	Urria	Sendagaien sentsibilizazioa eta gidatzea	Barne, Funtzio Publikoa eta Justizia	60.000
28	Urria	Laneko segurtasuna eta osasuna	Osasuna	40.000
29	Azaroa	"Gora Gora FEST" programaren sustapena	Memoria eta Bizikidetza, Kanpo Ekintza eta Euskera	50.000
30	Azaroa	Nafarroaren Eguneko ekitaldien zabalkundea	Lehendakaritza eta berdintasuna	70.000

2. Plangintza horretatik kanpo geratzen dira "Nafarroako Turismoa" marka sustatzeko publizitate-kanpainak, horien espezifikotasuna eta inpaktua batez ere Foru Komunitatetik kanpo dagoelako.



3. Halaber, Nafarroako Gobernuko departamentuek plangintza honetan jasotakoez bestelako publizitate instituzionaleko kanpainak bultzatu ahal izango dituzte, publizitatea kontratatzeko dagozkien aurrekontu-kredituen kargura. Enkargu horiek subsidiarioak izango dira plangintza honetan jasotako kanpainei dagokienez, eta Publizitate Institutuzionalaren, Sare Sozialen eta Ikus-entzunezko Baliabideen Atalean izapidetu beharko dira uztailaren 31 baino lehen, dagozkien kanpainak 2026ko ekitaldian zabaldu ahal izateko.

4. 2026ko abenduan publizitate-ekintzak aurreikusten dituzten publizitate-kanpainak 2027ko ekitaldiko aurrekontu-kredituarekin finantzatzeko dira, oso-osorik.

5. Komunikazioaren eta Proiektzio Institutuzionalaren Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen duen Publizitate Institutuzionalaren partidaren saldoa, planifikatutako kanpainak gauzatzeko gastu txikiagoen ondoriozkoa, Zuzendaritza Nagusi horrek Urteko Plan honetan zerrendatutako beste kanpaina batzuen gastua handitzera edo Plan honen xede izan ez diren eta gerora sortutako beste publizitate-ekimen batzuetara bideratu ahal izango du (3. puntua).

6. Oro har, publizitate-mezuak Nafarroako bi hizkuntza koofizialetan zabalduko dira.

7. Publizitate-meziek gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatuko dute; LGTBI+ kolektiboa ikusaraziko dute; kulturen arteko aniztasuna erakutsiko dute; eta irisgarritasun unibertsalari buruzko foru-araudia beteko dute.

8. Publizitate-meziek Nafarroako Gobernuaren logotipoa jasoko dute, modu grafiko edo esatari batean, publizitate-mezu guztietan, urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuarekin bat etorritik. Foru Dekretu horrek ikur ofizial hori eta haren erabilera arautzen ditu, bai eta "Nafarroako Marka" lurralde-markak zehazten dituen erreferentzia grafikoak eta lokuzio-erreferentziak ere.

9. Komunikabideetan publizitate-tarteak erosteko kontratazioa publizitate-kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera egingo da (1/2003 Foru Agindua, Toki Administrazioako kontseilariak Gobernuaren bozeramaile gisa emana), eta audientzia-irizpide nagusia CIES S.L. enpresaren 2025erako Nafarroako Audientzien Azterlana aplikatuz neurtuko da (komunikabideen, publizitate-agentzien eta erakundeen — besteak beste, Nafarroako Gobernuaren — baterako finantzaketarekin egina).

10. Komunikazio Zerbitzuak 2027ko lehen hiruhilekoan argitaratuko du Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian Nafarroako Gobernuak 2026ko ekitaldian publizitate instituzionalean egindako inbertsioen betearazpenari buruzko txostena.